

Bizkaiko Foru Aldundiaren ___/2016 FORU DEKRETUA, abenduaren ... (e)koa. Honen bidez, bi dekretu aldatzen dira: batetik, hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dituen abenduaren 3ko 163/2013 Foru Dekretua eta, bestetik, landa-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dituen abenduaren 16ko 168/2014 Foru Dekretua.

Ekainaren 28ko 118/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamenduaren 21. artikuluekin bat, ondasun higiezinaren katastro-balioak ezartzeko balio-txostenetan erantsiko dira une bakoitzean ondorio fiskaletarako indarrean dauden balioztatzeko arau teknikoak, zeinetan behar bezala arrazoituta egin ahal izango diren katastro-balioa kalkulatzeko beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak.

Abenduaren 3ko 163/2013 Foru Dekretuaren bidez, hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartu ziren, katastro-balioei aplikatu beharrekoak barne. Bestalde, abenduaren 16ko 168/2014 Foru Dekretuaren bidez, landa-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dira, katastro-balioei aplikatu beharrekoak barne.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia ___/2016, de.....diciembre, por el que se modifican el Decreto Foral 163/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueban las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza urbana y el Decreto Foral 168/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueban las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza rústica.

De conformidad con el artículo 21 del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por Decreto Foral 118/2016, de 28 de junio, las Ponencias de Valores para la fijación de los valores catastrales de los bienes inmuebles, incorporarán las normas técnicas de valoración a efectos fiscales vigentes en cada momento, en las que se podrán realizar de forma motivada aquellas adaptaciones que se consideren precisas para el cálculo del valor catastral.

Mediante Decreto Foral 163/2013, de 3 de diciembre, se regulan las Normas Técnicas de Valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza urbana, incluyendo las normas aplicables a la valoración catastral. Por su parte, el Decreto Foral 168/2014, de 16 de diciembre, regula las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza rústica, incluyendo asimismo la valoración catastral.



Aurreko paragrafoko xedapenak ekainaren 28ko 118/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamenduaren aurrekoak direnez, ez dute inolako aipamenik egiten katastro-balioak lortzeko indarrean dauden balioztatzeko arau teknikoetan balio-txostenek –dekretu hori dela bide– egin ditzaketen zehaztapenei buruz, eta horrek okerra eragin dezake haien aplikazioa egitean.

Hori dela eta, zerga ondorioetarako balioztatzeko une bakoitzean indarrean dauden arau teknikoak interpretatzean okerririk gerta ez dadin, bereziki katastro-balioei dagokienez, beharrezkotzat jotzen dugun zuzentzea foru dekretu biak direla eta aipatu dugun omisio hori.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko

Las disposiciones referidas en el párrafo anterior, siendo anteriores en el tiempo al Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por Decreto Foral 118/2016, de 28 de junio, no hacen mención alguna a las posibles especificidades que, en virtud de ésta última, las Ponencias de Valores pueden realizar en las normas técnicas de valoración vigentes a los efectos de obtención de los valores catastrales, lo que puede llevar a cierta confusión en cuanto a su aplicación.

Es por ello, que, con el objetivo de evitar errores en la interpretación de las normas técnicas de valoración a efectos fiscales vigentes en cada momento, en especial, en lo que a valoración catastral se refiere, se ha considerado necesario suplir la omisión a que hemos hecho referencia en ambos Decretos Forales.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y



Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2016ko abenduaren XX(e)ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de __ de diciembre de 2016,

XEDATZEN DA:

SE DISPONE

1. artikulua. Abenduaren 3ko 163/2013 Foru Dekretua aldatzea; haren bidez, hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dira:

Artículo 1. Modificación del Decreto Foral 163/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueban las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza urbana:

Honako aldaketa hauek egiten dira hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dituen abenduaren 3ko 163/2013 Foru Dekretuan:

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 163/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueban las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza urbana:

Bat. Berridatzi egiten da 3. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

Uno. Se da nueva redacción al artículo 3, que queda redactado de la siguiente forma:

«**3. artikulua. Hiri-ondasunak.**

“**Artículo 3. Bienes de naturaleza urbana.**

Foru dekretu honetan xedatzen denerako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 7. artikulua hiri-lurreko ondasun higiezinak jotakoak izango dira hiri-ondasun higiezinak.»

A efectos de lo dispuesto en el presente Decreto Foral, tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza urbana los contemplados como tales en el artículo 7 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.”



Bi. Berridatzi egiten dira 4. artikuluko 1. eta 2. zenbakiak; honela geratzen dira idatzita:

“1. Hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau tekniko hauek aplikatuz lortuko da hiri-ondasun higiezinaren merkatu-balio probablea.

Edonola ere, ekainaren 28ko 118/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamenduaren 21. artikuluekin bat, balio-txostenek arau teknikoetan egin ahal izango dituzte katastro-balioa kalkulatzeko beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak.

2. Hiri-ondasun higiezinaren gutxieneko balio eratzikigarria dagokion balio-txostenaren ondoriozko merkatu-balio probablea zuzenduz lortuko da, eta, horretarako, merkatuarekiko erreferentzia duen koefiziente modulatzailerik bat aplikatuko zaio, K koefizientea, foru dekretu honen eranskinen 9. arauan zehazten denarekin bat.”

Dos. Se da nueva redacción a los apartados 1 y 2 del artículo 4, que quedan redactados en los siguientes términos:

“1. El Valor Probable de Mercado de los bienes inmuebles de naturaleza urbana será el resultante de la aplicación de las presentes Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza urbana.

No obstante, de conformidad con el artículo 21 del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral 118/2016, de 28 de mayo, las Ponencias de Valores podrán realizar en las presentes Normas Técnicas aquellas adaptaciones que se consideren precisas para el cálculo del valor catastral.

2. El Valor Catastral de los bienes inmuebles de naturaleza urbana será el resultante de la corrección del Valor Probable de Mercado derivado de la Ponencia de Valores que corresponda, mediante la aplicación de un coeficiente modulador de referencia al mercado R_m , tal y como se describe en la Norma 9 del Anexo al presente Decreto Foral.”



2. artikulua. Abenduaren 16ko 168/2014 Foru Dekretua aldatzea; haren bidez, hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dira.

Honako aldaketa hauek egiten dira , landa-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onartzen dituen abenduaren 16ko 168/2014 Foru Dekretuan:

Bat. Berridatzi egiten da 2. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. artikulua. Landa-ondasun higiezinak.

Foru dekretu honetan xedatzen denerako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 8. artikulua landa-lurreko ondasun higiezintzat jotakoak izango dira hiri-ondasun higiezinak.

Dena den, foru dekretu honen eranskinean jasotako arau teknikoek zehaztuko dute zein diren landa-ondasun motak, zeinei arauok aplikatu behar baitzaizkie.”

Artículo 2. Modificación del Decreto Foral 168/2014, de 16 de diciembre, por el que se prueban las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza rústica.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Decreto Foral 168/2014, de 16 de diciembre, por el que se prueban las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza rústica:

Uno. Seda nueva redacción al artículo 2, que queda redactado de la siguiente forma:

“Artículo 2. Bienes inmuebles de naturaleza rústica.

A efectos de lo dispuesto en el presente Decreto Foral, tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza rústica los contemplados como tales en el artículo 8 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

No obstante, las normas técnicas definidas en el Anexo del presente Decreto Foral determinarán los tipos concretos de bienes inmuebles rústicos respecto de los cuales resulten de aplicación.”



Bi. Berridatzi egiten dira 3. artikuluko 1. eta 2. zenbakiak; honela geratzen dira idatzita:

“1. Landa-ondasun jakin baten merkatu-balio probablea zein den jakiteko, landa-lurreko ondasunak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak aplikatuko dira (arau tekniko horiek foru dekretu honen eranskin gisa jasotzen dira).

Edonola ere, ekainaren 28ko 118/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroaren Erregelamenduaren 21. artikuluekin bat, balio-txostenek, behar bezala arrazoituta, arau teknikoetan egin ahal izango dituzte katastro-balioa kalkulatzeko beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak.

2. Aurreko zenbakian adierazitakoa gorabehera, landa-ondasun higiezinaren merkatu-balio probablea beste balio batzuk kalkulatzeko erabiliko da: katastro-balioa, esleitu beharreko gutxieneko balioa eta beste zerga-balio batzuk. Horretarako, merkatuarekiko erreferentzia duten koefiziente modulatuzaileak aplikatuko dira — Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez onartu behar dira koefizienteok—, foru dekretu honen eranskineko II. kapituluan azaltzen denez.”

Dos. Se da nueva redacción a los apartados 1 y 2 del artículo 3, que quedan redactados de la siguiente forma:

“1. El Valor Probable de Mercado (VPM) de un determinado bien de naturaleza rústica será el que resulte de la aplicación de las Normas Técnicas para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles de naturaleza rústica definidas en el Anexo al presente Decreto Foral.

No obstante, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por Decreto Foral 118/2016, de 28 de mayo, las Ponencias de Valores podrán realizar en las referidas Normas Técnicas aquellas adaptaciones que se consideren precisas para el cálculo del valor catastral.

2. Sin perjuicio de lo indicado en el apartado anterior, el Valor Probable de Mercado (VPM) de los bienes inmuebles de naturaleza rústica servirá para la obtención del Valor Catastral (VC), del Valor Mínimo Atribuible (VMA) así como de otros valores fiscales mediante la aplicación de coeficientes moduladores de referencia al mercado aprobados mediante Orden Foral del diputado foral de Hacienda y Finanzas, tal y como se describe en el Capítulo II del Anexo al presente Decreto Foral.”



AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Foru dekretu hau argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bilbon, 2016ko abenduaren ___(e)an

Ahaldun Nagusia
El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ

DISPOSICIONES FINALES

Primera.

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente a su publicación.

Segunda.

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

En Bilbao, a ___ de diciembre de 2016.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ